

EUSKARAZKO BIBLIEI BURUZ

Gasteizko Apaizgaitegiak, hau da, gaur egun Teologia Fakultatea izena hartu duenak, beti du oihartzun atsegin bat euskaldunentzat, han izan baitziren irakasle, besteak beste, Manuel Lekuona eta Jose Migel Barandiaran. Bada, ikastegi horretako *Scriptorium victoriense* aldizkarian artikulua bat argitaratu da euskaraz, lehen aldiz, oker ez banago,. Albiste pozgarri hori baliatuz laburki iruzkinduko dugu argitalpen akademiko horren azken zenbakia.

Euskaltzaleentzat, dudarik gabe, aipatu artikulua du interesik handiena, hots, Dionisio Amundarainek argitaratzen duen “Biblia Euskal Herriko historian” (185-263 or.).Ikuspegi kritiko batetik abiatuz, ederki laburbiltzen ditu Bibliak euskaraz izan dituen argitalpenak, ohar labur eta argigarriak eskainiz.

Dena den, nire ustetan baliorik handiena da ikuspegi filologikoa eta traduktologikoa ikuspegi *kristau* batekin konbinatzea da, alegia, testu bakoitzaren balorazio bat eskaintzea kristau fededun baten ikuspuntutik, zeren eta, batzuetan, testu-kritikan murgiltzearen murgiltzeaz ahazteko arriskua dago testu horiek nork, noiz, norentzat eta zergatik argitaratzen zituen, eta unean-unean izan zuten arrakasta eta hedapena. Kontuan hartu beharreko datuak, esango nuke, testuon mezuarekiko atxikimendu pertsonala dena delakoa izanik ere. Jatorrizko artikulua euskaraz dago baina ondoren dator gaztelaniazko bertsio bat.

Hortaz gain, Filologian interesatuak zenbaki berean aurkituko du exegesi bibliko modernoaren adibide bikain bat, J.A. Badiola Saenz de Ugarteren eskutik, beharbada gazteenei erabat ezezaguna zaien testu-kritikarako metodo eta prozedura zorrotz batzuen berri eskainiko diena. Liturgia katolikoaren erreformari buruzko artikulua batek (J.A. Goñi Beasoain de Paulorena) eta Benedikto XVI.a aita santuaren azken entziklikaren zenbait alderdi iruzkintzen duen artikulua (A.J. Jaramillo Henao) osatzen dute zenbakia.

Azkue Bibliotekan eskuragarri:

Scriptorium victoriense. -- V. 1 (en.-jun. 1954)-. -- Vitoria : Escuela Superior de Teología, Seminario Diocesano de Vitoria, 1954-

Pruden Gartzia